



ANDER EDO

## FESTAK OSPATZERA DATOZ PELLO ETA NIKOLASA



**ORIO**  
marea bizian

Ondo pasa sanikolasak!

orio.eus



# BARE

HORTZ KLINIKA

📍 Arrantzale 63, behe

☎ 943-29 06 19

639 44 52 34

📷 @bare.hortzklinika

*Ondo pasa  
San Nikolas  
jaiak!*

- **Implanteak**
- **Ortodontzia / Alineadoreak**
- **Odontopediatria (PADI)**
- **Odontologia biologikoa**
- **Odontologia estetikoa**



SLOW

ODONTOLOGIA





**Pello eta Nikolasa**



# Pello eta Nikolasa, plazara

Aurten hamar urte bete dituzte Pello eta Nikolasak, herriko umeen lagun berezienek. Saregilea eta arrantzalea udazkenean atseden hartzen egon dira Kultur Etxean, baina festetan egunero egingo dute dantza. Hona hemen ordutegiak eta ibilbideak.

**ABENDUAK 5,  
ASTEARTEA  
18:30**

Pello eta Nikolasa erraldoiak, buruhandiak eta Danbolin musika eskolako txistu taldea.

**Ibilbidea:** Kultur Etxea, Eusko Gudari, Arrantzale, Baxoalde, Palota, Munto Plaza, Balea, Arrantzale, Plaza.

Ibilbidean zehar, soinurik gabeko gunea izango da MUNTO PLAZA, 18:45 aldera.

**ABENDUAK 6,  
ASTEAZKENA  
17:00**

Pello eta Nikolasa erraldoiak, buruhandiak eta Danbolin musika eskolako trikitilari taldea.

**Ibilbidea:** Plaza, Eusko Gudari, Iturbide, Kale Nagusia, Plaza.

Ibilbidean zehar, soinurik gabeko gunea izango da PILLIKU PLAZA, 17:15 aldera.

**ABENDUAK 7,  
OSTEGUNA  
17:30**

Kuadrillen eta familien igoera, Hamarru elektrotxarangarekin, Pello eta Nikolasa erraldoiekin eta buruhandiekin.

**Ibilbidea:** kiroldegia, Palota, Munto Plaza, Balea, Arrantzale, Plaza, Aritzaga, Ibai Ondo.

Ibilbidearen hasieran, soinurik gabeko gunea izango da KI-ROLDEGI AURREAN, 17:00 aldera.

**ABENDUAK 8,  
OSTIRALA  
17:30**

Pello eta Nikolasa erraldoiak, buruhandiak eta Danbolin musika eskolako txistu taldea.

**Ibilbidea:** Kultur Etxea, Eusko Gudari, Arrantzale, Baxoalde, Munto Plaza, Balea, Arrantzale, Plaza, Aritzaga, Ibai Ondo.

Ibilbidearen hasieran, soinurik gabeko gunea izango da EUSKO GUDARI (KULTUR ETXE ATZEAN), 17:00 aldera.

**OHARRAK:**

**Buruhandiak ere prest daude umeen atzetik korrika hasteko. Jolasa behar bezala joan dadin, zenbait ohar egin nahi dizkiete orioko haur eta gazteei:**

- Izututa dauden umeei eskua emateko prest egongo dira buruhandiak.
- Helduenok, berriz, buruhandien aurretik ibiliko zarete. Mesedez, errepestua gure buruhandiei. Irainak, hitz edo jarrera desagokiak entzuten badira bertan beharra geldituko da buruhandien jolasa.





Festa batzordeko kideak Pello eta Nikolasa erraldoiekin eta buruhandiekin.





# ELKARLANEAN BAINO EZ DELAKO POSIBLE

—XABI IBARGUREN AZKUE

**F**esten antolaketa ez da arratsalde bakarreko kontua. Bilerak nola eta noiz antolatu, diseinatu, jasotako proposamen eta ekarpenak landu, aurrekontura egokitu, materiala berrikusi... eta beste hamaika egiteko ditu jaien antolaketak, sarritan ezkutuan eta isilean egiten diren lanak.

Bide horretan, irailaz geroztik, lau aldiz bildu da festa batzordea. Udako oporretatik bueltan, orri zuria eskuetan, herritarren ideia zaparradari heldu, eta nolako jaiak nahi genituen irudikatu genuen. Urrian eta azaroan zehar, ideia horiei forma eman diegu eta 2023ko sanikolasetako egitaraua itxi dugu, eta azken prestaketa lanekin gabiltza orain.

Sentsibiltate askotako zein eremu askotan lanean dabiltzan berrogei lagun inguru bildu ginen lehen bilera hartan, eta han proposatutako eta landutako aisialdi eta kirol eskaintza, musikaz eta dantza ekimenez osatutako egitaraua da orriotan duzuen, eta nola ez, aurten ere kaleak parrillako ke eta eltze usainez beteko ditugu, jan-edana ere ez delako faltako. Eguneko ekitaldiak indartzeko nahiarekin josi dugu egitaraua, adin guztietako herritarentzako, nahi eta gustu desberdinak kontuan hartuta egindako ahalegina.

Ahaleginak ahalegin, ekaineko txupinazo koloretsuaren ostean, oraingo honetan ere dantzan, koloretsu eta irribarre batekin hasi nahi ditugu festak. Txarangaren doinu dantzagarriarekin eta arrantzale zapiarekin ekingo diegu herriko festei. Omenduei egin ohi zaien ekitaldia, beraz, San Nikolas egunez izango da. Merezi duten aitortza ekitaldia egingo diegu, Danbolin musika eta dantza eskolako bandaren kontzertuaren ostean, Salatxoko eta Harribileko kideekin, txistulariekin, udal ordezkariekin eta Pello eta Nikolasa erraldoiekin batera.

Guztira 59.000 euroko aurrekontua dute aurtengo festek. Inguruko festa garestienak ez badi-ra ere, mimos landutakoak dira, eta Orioko festetako ekitaldi ba-



Iazko sanikolasetako txupinazoa.

koitzaren atzean dago hori guztia aurrera ateratzen duen herritar talde konprometitua. Festaren atzeko eta isileko lanak tarteka agerian jarri behar direla iritzita, eta herri proposamen guztiak aztertuta, herriari eskatzeaz haratago, eskaintzeko nahia izan duten horien lana omentzera goaz. Festek kultur eta kirol ekitaldiak izaten dituzte, besteak beste, baina zer da ba festa jan-edanik gabe?

«Festa da parranda eta parranda da festa, baina bada aldarrikapena ere»

Isilean eta musu truk egindako lana erdigunean jarri eta hamaika aldiz parrillaren eta sukaldearen bueltan aritu izan den sukaldari kuadrillari egin nahi izan dio aurtengoan aitortza festa-batzordeak.

Festa bada aisialdirako unea, dibertsiorako eta libertimendurako unea. Festa da parranda eta parranda da festa, baina bada aldarrikapena ere. Festa antolatzea ez baita ekitaldiak zerrendatze kontu hutsa, horregatik, gatazkak eta iritzi desberdinak ere plazaratzen dira batzordean. Norbanako ba-koitzaren musika eta ekitaldi gus-

tuak alde batera utzi, eta herritar guztion festak nolakoa izan behar duen hausnartzea ere badagokigu. Eremu pribatuan eragin nahi badugu, eremu publikoan eragiten hastea badagokigulako. Horretara datoz, euskaraz festak antolatzen jarraitu nahi izatearen aldarria, giza jokabideekin errespetuzkoak eta ingurugiroarekin jasagarriak izateko nahia.

Hartu ditugu datozen festetarako ere etxerako lanak. Festak berak bezala, errespetuzkoa behar duelako izan atzeko lanak. Belaunaldien arteko transmisioak bermatuko baitu herrigintza eta auzolana. Iritziak iritzi, pozgarria da festa batzordean parte hartu duten adin desberdinetako herritarrek eta eragileetako ordekariek elkarrekin ideiak konpartitzea. Garai berrietan behar ditugu modu eta molde berriak, baina beharko dugu jakin nondik gatozen, nora joateko.

Datozen orrietan doakizue aurtengo San Nikolas festetarako antolatutakoa. Horra gozatzeko eta gozatzeko haratago, lagunartean, kuadrillan, familian parte hartzeko gonbidapena. Festa zer da, bada, oiho, zalaparta eta eskandalurik gabe!



**ANDU**

altzariak  
proiektuak  
berrikuntzak

Eusko Gudari, 10 · ORIO  
943-13 09 99  
[www.andualtzariak.es](http://www.andualtzariak.es)  
[andualtzariak@euskalnet.net](mailto:andualtzariak@euskalnet.net)



**ITZIAR**  
**KIROLAK**

Ondo pasa San Nikolas jaiak!

Eusko Gudarien kalea, 23  
ORIO · 943-83 31 03

edoritegia

**Antilla** jatetxea

Ondo pasa sanikolasa!

Abeslari kalea, 2  
ORIO  
943-83 23 09

- Menuak
- Plater konbinatuak
- Errazioak
- Ogitartekoak

**Gabon**  
TABERNA

ONDO PASA SAN NIKOLAS JAIK!

Pintxoak / Plater konbinatuak / Ogitartekoak

EUSKO GUDARIEN KALEA, 7 · 943-83 06 09



ondo pasa festetan!

**As@i**  
Informatika

Eusko Gudarien Kalea, 17  
ORIO  
M.: 665 22 82 96





# OHARRAK

## ERASO MATXISTARIK GABEKO FESTAK EZ BETI DA EZ

Ez izan konplize erasoen aurrean; ez gelditu isilik.  
Herriar guztion ardura da  
ERASO MATXISTAK BAZTERTZEA.

### ZER EGIN ERASO BATEN AURREAN?

- Ez isildu eta ez ezkutatu. Erasoaren erantzukizuna erasotzailearena da, ez erasoja jasan duenarena.
- Erantzun erasotzaileei, geldiarazi beren jarrerak. Eman babesa eta laguntza lagunari, izan ezaguna edo ezezaguna.
- Ez utzi bakarrik!
- Sexu erasoja edota eraso fisikoa jasan baduzu, zeure erabakia da salatzea edo ez.
- Bilatu konfiantzako norbait lagun zaitzan.

### 24 ORDUZ MARTXAN DAUDEN TELEFONOAK

Salatu nahi baduzu: Larrialdiak 112

Salatu nahi ez baduzu:

SATEVI: Sexu erasoak jaso dituzten emakumeentzako informazioa eta arreta: 900-84 01 11

### ORIOKO BALIABIDEAK (astelehenetik ostiralera)

Gizarte zerbitzuak: 943-83 03 46 luz.6

Emakumeon\* Ahalduntze Eskola: 623 17 85 53

**FROGAK** funtsezkoak dira izan daitekeen epaiketari begira.  
**EZ ALDATU ARROPA**, eta **EZ GARBITU** gorputzeko atal bat bera ere osasun azterketa egin arte.  
Osasun txostenen kopia eskatu, salaketa jartzeko beharko duzu.

### HERRI BAZKARIRAKO TXARTELAK

Kultur Etxean erosi behar dira txartela kabenduaren1a baino lehen.  
Gehienez, 400 txartel salduko dira.

- **Menua:** otarrainxkak, hestekiak, tortilla eta txahal saiheskia parrillan. Postrea eta kafea. 18 euro.
- **Menu beganoa:** gari zainzuriak parrillan, pistoa, babarrun zuriak onddoekin. Postrea eta kafea. 18 euro.
- **Haurren menua:** makarroiak tomatearekin, patata tortilla. Postrea. 8 euro.

Auzolan handia izango da herri bazkaria: omenduak izango diren sukaldari taldeak prestatuko du, gazte taldeek muntatu eta zerbitzatuko dute, eta denon artean jasoko dugu kiroldegia hurrengo egunean 3x3 saskibaloia festa solidariarako txukun-txukun egon dadin.

### KANTU JIRA: ZATOZ KANTURA!

Ez duzu zertan kantaria izan; eztarria urratzen hasia duzula...ez dio inporta! Gorlizko Txerokiak datoz egun pasa Oriora, eta eurekin dakartzate kanturako orriak eta musika instrumentuak. Eguerdian da zita, Herriko Plazan!



Abestu gurekin!



# Zaragueta IPI

## Herri Eskola **Orio**



**ONDO PASA  
FESTAK**



[zaragueta.eus](http://zaragueta.eus)

Badakizu, eskolako ateak beti irekita dituzu.  
Telf: 943899243 / [kaixo@zaragueta.eus](mailto:kaixo@zaragueta.eus)



# DOAN EZ DA DEBALDE



**ZURE EKARPENA BEHAR DUGU.  
EGIN ZAITEZ BAZKIDE.**

**bazkide@ukt.eus • 943-81 38 41**



# GUKA ZOKKETA KARKARA.eus

webgunean  
<<<



Parte hartu  
**abenduaren 8a**  
baino lehen,  
eta irabazi **itsaskiz**  
**betetako saskia**



Zuzenean  
parte hartzeko

**TXANKA**  
MARISCOS

TXANKA MARISCOSen eskutik  
[www.mariscostxanka.net](http://www.mariscostxanka.net)





# HERRIKO TXARANGA, MARTXAN

*Gustura eta pozik ari dira txarangako kideak lanean, eta azken hilabete hauetan herritarren esker ona ere jaso dute. Izan ere, atzeko lan handia du txaranga bat hutsetik hasita martxan jartzeak. Apirilean hasi zituzten entseguak, eta ordutik, nabarmen hazi da musikarien kopurua.*

**M**usika tradizio handiko herria da Orio. Adierazle asko daude baieztapen hori arrazoitzeko. Historian atzera eginda, eguneroko lanetan, emakumeek eskabetxerietan eta arrantzaleek baporetan abesteko ohitura handia zuten. Festetan, berriz, San Nikolas zein San Pedro jaietan, txistulari talderik, bandarik, abesbatarik edo txarangarik sekula ez da falta izan herriko kaleetan.

Izan da apalaldirik, baina berpizte moduko bat nabaria da; azken urte luzeetan Danbolin musika eta dantza eskolako ikasleek eta ikasle ohiek zabaldu dute panorama. Ez da kasualitatea herrian sortutakoak izatea Gozategi, Ithaka, Gaitza, Arrautz Ustelak, Intza, Heje Fighters, Giranice eta beste hainbat talde; hori bada zerbaiten seinale.

Gustura eta pozik ari dira txarangako kideak lanean, eta azken hilabeteotan herritarren esker ona ere jaso dute. Herriko arraunlariek bandera irabazita, Alirona jotzeko beharrak bildu izan ditu Orion kaleko musikariak, baina txaranga-





Aurtengo San Pedro egunean eskaini zuten lehen emanaldia.

ko kideek azaldu dutenez, zabaltsun handiagoa eman nahi diote hasiberri den proiektuari: «Kalean eta festan ikusten dugu geure burua, zerbait ospatu behar den aldiro, prest gaude herriak behar gaituen ekitaldi guztietan jotzeko».

**«Kalean eta festan ikusten dugu gure burua, zerbait ospatu behar den aldiro, prest gaude herriak behar gaituen ekitaldi guztietan jotzeko»**

diro, prest gaude herriak behar gaituen ekitaldi guztietan jotzeko», adierazi dute. San Pedro egunean ateraziren lehen aldiz kalera; orduetik, arraunlariei egindako ongi-etorrietan, Kon-

txako bigarren igandean Donostiako kaleetan zein arranpala, eta Mutiozabal Festan jo dute. San Martin festan aitzakian, berriz, Ortaikan egin zuten entsegu bat azaroaren 17an.

Izan ere, atzeko lan handia du txarang batek. Apirilean hasi zituzten entseguak, eta musikari kopurua nabarmen hazi da orduetik. Hogeitik gora musikari biltzen dira gaur egun; gazteak dira asko, Danbolin musika eta dantza eskolako ikasleak gehienak. Bada instrumentuari hautsa kenduta dabilen heldurik ere. Hasieran, astero biltzen ziren Kosta Tailerrean;

orain, bi astez behin ari dira biltzen Kultur Etxean. Txarangako kideek azaldu dute oriotar musikari guztiei zabaldutako proiektua dela, eta norbait zalantzan izanez gero, entseguetara probatzera azaltzera gonbidatu dute. Baxuak falta dituzte, «bonbardinoak eta tronboiak, nagusiki».

San Nikolas egunean, eguerdian aterako dira kalera txarangako kideak, eta janaria partitzen duen karroarekin batera joango dira; abenduaren 8an, berriz, iluntzean, ohiko kale buelta egingo dute. Horrez gain, urtarrilaren 5ean Erregeen kabalkadan jotzeko asmoa ere badute.

**ASADOR xixario ERRETEGIA**

*Ondo pasa San Nikolas jaiak!*

Eusko Gudarien Kalea, 2 · ORIO · 943-83 00 19  
xixariobeltran@gmail.com · www.xixario.com

**IGLESIAS**  
SARRAILAGILEAK 24 H

**LARRIALDIAK 24 ORDUZ**

637 723 308 · www.iglesiascerrajeros.com

GALDUTAKO GILTZAK · BARRUTIK JARRITAKO GILTZAK · HAUTSITAKO EDO IZORRATUTAKO SARRAILAK · IBILGAILUAK IREKITZEA · OBRAK · KUTXA GOTORRAK

**Islada Estetika**

- Laser diodo depilazioa
- Mikropigmentazioa
- Aurpegiko tratamenduak
- Gorputzeko tratamenduak
- Masajeak
- Tratamendu mediko estetikoak

Aita Lertxundi kalea, 31 behea · ORIO · 688 62 55 28  
Ordutegia: astelehenetik ostiralera 9:00-19:00

**TXANKA**  
MARISCOS

648 27 04 97  
www.mariscostxanka.net | info@mariscostxanka.com  
ORTZAIIKA AUZOA | TXANKA BASERRIA Z/G ORIO

**Joseba AROZTEGIA**

M.: 687 683 427  
josebaarotza@gmail.com

ATEAK / ZOKALOAK / ARMAIRUAK NEURRIRA  
LEIHOAK / ESKAILERAK / AROZTEGIA OROKORREAN





Koldo Arruti eta  
Jesus Makazaga:  
«Guri eman  
zigutena guk  
besteei eman  
besterik ez dugu  
egin»

**KOLDO ARRUTI ETA JESUS MAKAZAGA • Sukaldariak**

Perrexila bezala, Orioko saltsa ia guztietan sartuta daude Koldo Arruti eta Jesus Makazaga *Makatza*. Biek, Bixente Lasarekin batera, herritarren omenaldia jasoko dute San Nikolas festetan, urteetan herritarrentzako otorduak prestatzen egin duten lana txalotzeko. Omenaldiaz hitz egiteko bildu da KARKARA Arrutirekin eta Makazagarekin. Hizlari bikainak dira biak, pasadizoak eta oroitzapenak bata bestearen atzetik kontatzen dituzten horietakoak, baina egin duten lana goraiatzeari edo goreslearen denean, hitz gutxiko bilakatzen dira.







Jesus Makazaga eta Koldo Arruti.

**Zer sentitu zenuten omenduak izateko hautatu zintuztetela jakin zenutenean?**

**Jesus Makazaga:** Lehenbiziko gauza harridura izan zen, nire kasuan behintzat. Ez diogu garrantzi berezirik ematen egiten dugu-nari, betidanik aritu baikara bazkariak eta hamaiketakoak prestatzen.

**Koldo Arruti:** Ez genuen espero, ez! Harridura izan zen nagusi.

**J. M.:** Aurreko batean bilera egin genuen udaletxeokokin eta han, gaintetik aipatu zuten txupinazoaren eta omenduen gaia, eta zera komentatu nien: «Gaur egun ezer gutxi egiteagatik omentzen dute jendea!». Ez nuen espero ni izango nintzenik hori!

**Noizbait pentsatu izan duzue omenduko zintuztetetik?**

**K.A.:** Ez horixe! Guri eman zigu-

tena guk besteei eman besterik ez dugu egin.

**Festak hurbiltzen ari dira. Urduritasunik sortzen al dizue omenduko zaituzteten unean pentsatzeak?**

**K.A.:** Oraingoz ez nago urduri, eta ez dut uste udaletxera igotzeagatik ere jarriko naizenik. Gehiago arduratzen nau nor gonbidatu erabakitzeak, azkenean, herritar ugari ibili baitira guri laguntzen batean edo bestean. Denekin gogoratzen gara, baina ez dakigu zenbatentzako tokia izango dugun ere. Abisua pasatzen ari gara denei, baina ez dakigu gero zenbat igoko diren.

**Aurten, gainera, txupinazoaz gain, omenaldi berezia ere izango duzue... Zer esan nahi du zuentzat herritar guztien aurrean aitoren hori jasotzeak?**

**J.M.:** Guri ez zaizkigu gustatzen horrelako gauzak, eta errazio bikoitza egokitu zaigu.

**Zuek biok eta Bixente Lasa, beti hirurok aritu izan zarete ala beste batzuen laguntza ere izan duzue?**

**K.A.:** Bixente eta hirurok antolatzen ditugu prestaketak beti, kopuruak zehaztu eta horrelako gauzak. Baina gero, jende asko dugu edota izan dugu laguntzen: kuadrillakoak, ondoko kuadrillakoak, denbora librea dutenak...

**J.M.:** Beti izaten dugu norbait alboan. Laguntza behar izanez gero, eskatu egin behar izaten da, eskatu gabe, inork ez baitizu lagunduko. Hala ere, eskean joanez gero, ia beti edo gehienetan baiezkoa ematen digute.

**K.A.:** Herri honetan bai behintzat, erantzuna beti izaten da baiezkoa.

**Nola hasi zineten otorduak prestatzen?**

**J.M.:** Futbol taldeko zuzendaritzako kide izan ginen urte luzez, eta orduan hasi ginen. Futboleko ibilitakoak ere bagara, eta Koldok esan bezala, gugatik egiten zutena besteentzako egiten hasi ginen, hori zegokigulako.

**K.A.:** Hamabi urte-edo izango dira sanikolasetan bazkaria prestatzen hasi ginela. Gure aurretik jubilatatu talde batek egiten zuen hori, eta haiek gehiago ez zutela egingo erabaki zuten. Hala, udalak galdetu zigun prestatuko al genuen, herritarrek bazkaria egiteko ohitura gal ez zezaten. Gogoa dut lehen aldi hartan kopuru zehatzik jakin gabe egin genuela dena, gutxi gorabehera.

**J.M.:** Pertsonako 300 gramo kontatu eta aurrera!

**K.A.:** Zenbat errazio izango ziren ere ez genekien, eta gainera, kazola txikietan prestatu genuen. Lehenaldi horren ondoren, kazola handiak erabiltzen hasia erabaki genuen.

**Eginez ikasi duzue, beraz?**

**J.M.:** Dudarik gabe. Aurreikuspenik eta prestaketarik gabe harropatu gintuzten lehen aldian, eta laguntzarik ere ez genuen izan.

**Herriko festak, futbola, arrautza... Herriko talde, elkarte eta herritar ugarirentzat egin duzue lana. Esperientzia irabazteko aukera izan duzue.**

**K.A.:** Arraunerako ez dugu gehiegi egin, noizean behin eskatu izan digute elkarte gastronomikoan bazkariren bat prestatzeko eta gu prest azaldu izan gara, baina ez da izan askotan egin dugun zerbait.



EGIN ZURE ERRESERBA  
**625 70 08 98**  
ZENBAKIRA DEITUTA



Olaskoegi auzoa, 36 · AIA-ORIO · 625 70 08 98

*Ondo pasa  
jaiak!*





2019ko Bisiguaren Festa.

**J.M.:** Atzeritik dantzari batzuk ekarri zituen behin udalak, eta haiei ere eman genien bazkaltzen; Kilometroak festa Orion ospatu zenean ere prestatu genuen marmitakoa; Bixigu Egunerako, adibidez, Bixente Azkuek egindako bi arraun berezi erabiltzen ditugu jatekoa mugitzeko...

**Ba al da bereziki gogoratzen duzuen ekitaldirik edo pasadizorik?**

**J.M.:** Getariara joan ginenekoa. Berrehundik gora lagunentzako bazkaria prestatzeko joan ginen gu biok eta Lasa. Pentsatuko zuten haiek: «Oriotarrak etorri behar Getariara marmitakoa egitera!».

**K.A.:** Kazola batean egin genuen dena, nahiko erraz.

**Sukaldean finak zarete, beraz.**

**J.M.:** Sukaldaria hau da [Arruti seinatuz].

**K.A.:** Txikitan ikasi nuen pixka bat. Amak taberna zuen, aita parrillan aritzen zen, eta horrela ikasi nuen zerbait.

**Nola antolatzen zarete? Lan asko hartzen al duzue?**

**K.A.:** Marmitakoaren kasuan, adibidez, aurreko egunean jende asko behar izaten dugu, patata kilo asko egoten delako zuritzeko eta puskatzeko. Egun horretan ia dena aurreratuta uzten dugu, eta egunean bertan lauzpabost pertsona nahikoak izaten gara prestatketa amaitzeko.

**J.M.:** Aurrez pentsatu behar izaten dugu zenbat lagun beharko ditugun, horiek denak antolatu, jateko guztia –tipulak, patatak, azenarioak...– prestatuta utzi, eta egunean kozinatzeko. Zerbitzatu, aldiz, beste batzuek egiten dute. Hori bai dela lana!

**Zuek egiten duzuen ere ez da gutxiagorako...**

**K.A.:** Marmitakoa prestatzen dugunean milatik gora errazio egiten ditugu, eta hori bada lana. Baina horrenbeste urteko eskarmentuaren ondorioz, dagoeneko erraz egiten dugu.

**Esker oneko hitzak entzuten al dituzue? Eskerrik jasotzen al duzue?**

**K.A.:** Bai, bai. Guk eskaini izan ditugun otorduak beti eskertu izan dizkigute, prestatutakoa oso ona zegoela edota oso ondo egiten dugula esanda.

**J.M.:** Askotan esan dut, prestatutakoa ona egon zein txarra egon, hurrena ere guk prestatu beharko dugula. Baina txantxak aparte, eskertza ugari jaso dugu.

**Zer da festetan lana egitea?**

**J.M.:** Gu ere han izaten gara, festan!

**K.A.:** Gainera, goiza bakarrik izaten da.

**Festez gozatzen al duzue? Zer duzue gustuko?**

**K.A.:** Familiarekin elkarte gastronomikora bazkaltzera joan eta kale buelta bat eginez gozatzten dut nik orain.

**J.M.:** Herriko festak garai batean ederrak ziren. Garai hartan herriarrek benetan parte hartzen zuten sanikolasetan. Gainera, Orion bazen industria eta arrantza, eta horrek herritarrek asko mugitzen zituen, bertakoak. Gaur egun, ordea, festak jaiegun askoko astean izaten dira, neguko festa bakarrenetakoak dira, data horietan behintzat, eta kanpotik jendetza etortzen da. Herri kiroletan ere aritzen ginen garai batean!

**K.A.:** Asto karreretan ibiltzen zen

Makatza; lasterketak irabazi ere egin zituen.

**Betidanik parte hartu izan duzue, beraz, festetan. Saltseroak al zarete?**

**J.M.:** Bai, esan daiteke saltseroak garela; bestela ez ginateke horrela ibiliko.

**K.A.:** Oraingo gazteek beste modu batera parte hartzen dute, gaueko festa gustatzen zaie.

**Zuei erreleboa hartzeko gazterik izango ote da?**

**J.M.:** Hasi beharko gara besteren batzuen bila ikas dezaten nola egiten dugun eta jarraipena izan dezan gure lanak.

**K.A.:** Bada gu baino gazteagoa den kuadrilla bat. Urte baten babarrun jana prestatzen erakutsi nien eta ordudanik haiek prestatzen dute; horiek behintzat badaude erreleboa hartzeko.

**Hemengo haragia.**  
**Etxeko produktuak:**  
**tripaki, odolki,**  
**txekorra, txorizo,**  
**kroketak...**

**HARATEGIA**  
**PATXI**  
**OLIDEN**  
**URDAITEGIA**

Eusko Gudari, 25 · 943-83 00 10





## MUSIKA DOINUAK, FAMILIA GIROAN

*Musika eskolako banda 32 kidez osatuta dago, eta adin desberdinetako pertsonak daude taldean: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen mailan hasi ohi dira bandan jotzen, 12 urterekin, eta erretiratuak ere badira taldean. Aurten, berrikuntza gisa, kontzertua emango dute San Nikolas festetan.*





Santos Carretero, Leire Iturralde, Olaia Askasibar eta Elena Errasti, Danbolin musika eskolaren atarian.

**O**dolez suertatu zaizun familia z gain, bada zuk aukeratzten duzun beste familia bat. Bizitzaren garai desberdinetan azaldu zaizkizun pertsonak aukeratzen joaten zara, zure babesleku direnak, ondo sentiarazten zaituztelako. Hori da, hain zuzen ere, Orioko Danbolin musika eskolako ban-

daren egoera: musikaren inguruan bildutako familia izatera iritsi dira.

Eta lotura hori San Nikolas jaien bueltan preziatzeko aukera izango dute oriotarrek. Aurten, bada berrikuntza nagusi bat, ordea; izan ere, urtero txupinazoan parte hartu ohi duten arren, aurten festen hasieran izan beharrean, kontzertua eskainiko du bandak San Nikolas egunean, abenduaren 6an.

«Urtero izan gara sanikolasetako txupinazoan, baina aurten ekitaldiari itzuli bat eman nahi izan diote. Txupinazoan herriko martxak jotzen zituen bandak, eta Salatxo abesbatza eta dantzari taldea ere bertan izaten ziren. Oso ekitaldi formal izaten zen, eta hari jai giro ukitu handiagoa ematea erabaki zuten. Hala, aurten, lehendabizikoz, kontzertua eskainiko dugu. Aspalditik ari gara entseguak egiten, eta erreperitorio

zabala eta festa girokoa izango da. Ederra izango da», azaldu du musika bandaren zuzendaria den Olaia Askasibarrek.

Musika eskolako banda 32 kidez osatuta dago, eta adin desberdinetako pertsonak daude taldean: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen mailan hasten dira han jotzen, 12 urterekin, eta erretiratuak ere badira taldean.

Bi maila daude musika bandaren barruan; banda txikia edo ha-

rrobia eta banda gaztea edo helduena. Orio herri txikia izanik, ordea, ez dute instrumentu guztiak jotzeko adina kide, eta emandaldi onak eskaintzen dituzten arren, beste musika banda batzuei esker, falta zaizkien instrumentu horiek jotzeko musikariak izango dituzte festen barruan eskainiko duten kontzertuan. Hala, emaitza borobilagoa izango da: «Gabezia asko izan ditugu, baina beti moldatu izan gara dugunare-





# KAÏOA

kaioa\_denda  
www.kaioa.es

Ondo pasa San Nikolas jaia!



**Kepa Loidi**  
harategia-urdaitegia

24 orduz harategi banagailua

Pelotari kalea, 1 · Orio · ☎ 943-83 25 65  
www.kepaloidi.com · info@kepaloidi.com



**Kolon Txiki**  
edaritegia · jatetxea

Ondo pasa festetan!

Herriko Enparantza 4 · ORIO · Tel.: 943-83 00 44



**kutixi**  
kafetegia

ondo pasa sanikolasak!

Aritzaga 9 · ORIO · 943-13 15 17



**niko**  
taberna

**Pintxoak · Karta · Razioak**  
**Ogitartekoak · Plater konbinatuak**

Palota Kalea, 5 · 20810 Orio · Egin erreserba 943-53 61 27



## XVIII • San Nikolas jaia

KARKARA

Ostirala, 2023ko azaroaren 24a

kin. Instrumentu batzuk falta izan zaizkigu beti, eta horiek gabe eman izan ditugu kontzertuak, politak gainera, baina falta diren instrumentu horiek gure bandarra batuta, are ikusgarriagoa izango da zuzenekoan», aurreratu du bandako kide Santos Carreterok.

Musikarako zaletasun handiko herria da Orio. Horren adierazle da musika eskolak 340 ikasle inguru izatea; «6.000 biztanleko herri batentzat datu oso esanguratsua da», dio musika eskolako zuzendari Elena Errastik. Kopuru handia izateaz gain, musikarako zaletasuna ere nabarmena da; izan ere, ikasleek musikarekin harremanetan jarraitzen dute gero ere, eta talde asko irteten dira Danbolin musika eskolatik. Festetan kontzertuak eskainiko dituzten musikari asko musika eskolan ikasitakoak dira. «Musikarako txinparta hori sortu zaiela erakusten du horrek. Pozgarria da. Jakin badakigu Mozart edo antzekorik agertzea oso zaila dela, eta horregatik da hain garrantzitsua zaletasunari arreta jartzea. Dirudienez, hori lortzen ari gara Danbolin musika eskolan; a zer poza!», gaineratu du.

Zaletasun horretarako giltzarri nagusia giroa da; izan ere, musika baino gehiago eskaintzen diote musika eskolak eta bandak Oriori. «Irakasle bezala, zaletasuna piztea da gakoa, baina gure kasuan, musika bigarren mailan gelditzen da ikasleekin dugun harremana nolakoa den ikusita. Oso gertukoa da, berezia», dio Errastik, eta modu berean bezain berezian azaldu ditu Leire Iturralde bandako kideak bere sentipenak: «Klasera etortzea zein bandan jotzea bada deskonexio moduko zerbait; eguneko errutinatik ateratzen zara, eta hitz egiten duzu, musika pixka bat jotzen duzun bitartean. Etxera beste lasaitasun batekin joaten zara. Asatearen egituraren edo antolakuntzan erdigunean daude musika eskola eta instrumentua; ezin ditut horiek kendu. Barruan daromatzen, eta beharrezkoak ditut astean zehar». Kideak esandakoa baieztatu du Askasibarrek: «Izugarria da bandan dugun giroa!».

### DANBOLIN, OSASUN BETEAN

1986. urtean sortu zuten musika eskola, eta gaur egun, 340 ikasle ditu. Askotariko ikastaroak jasotzen dituzte horiek: pianoa, esku-soinua, gitarra, txistua, klarinetea, tronpeta edota panderoa bezalako instrumentuak ikasten dituzte, baita euskal dantzak, musika mintzaira eta mugimen-



Musika eskolako bandako kideak. UTZITAKOA





dua ere. Aukerak anitzak dira, beraz, Danbolin musika eskolan.

Osasun oneko musika eskola da, nahiz eta ez den horrela izan beti. «Pandemia izan zen inflexio puntua, beherakada nabarmena izan genuen ikasle kopuruan, baina, aurtan, adibidez, iazko ikasturtean baino hogeik ikasle

«Astearen egituran edo antolakuntzan erdigunean daude musika eskola eta instrumentua; ezin ditut horiek kendu. Barruan daramatzat, eta beharrezkoak ditut»

gehiago ditugu. Hori datu ona da guretzat, gaur egungo gizartean haurrek dituzten eskolaz kanpoko aukera guztiekin edota Orion arraunak duen indarrarekin oso-oso zaila baita kopuruak mantentzea», azaldu du Errastik.

Bestalde, teknologiak eskaintzen duen aukera zabala sartu dute irakaskuntzan, eta orain, plataforma edo aplikazio desberdinen bitartez irakats dezakete musika mintzaira. «Betiko solfeo, tradizionala, modurik berri-tzaileenean landu dezakegu. Pantaila bidez egiten dugun arren, interaktiboa da, baina teoria hutsa da ikasleek barneratzen dutena. Horrek asko aldatu ditu irakasteko eta ikasteko moduak, baina horrek, era berean, asko aldatu gaitu gu. Gu ez gatoz informatika mundutik, ez ginen garai horretan hezi, eta ikastea tokatu zaigu. Eboluzioa osoa izan da, eta dena bizitzea eta ikustea egokitu zaigu», gaineratu du Errastik.

Eboluzioa etengabekoa da musika eskolan, are gehiago, biztanleria txikiko herri batean, eta eboluzio horrek ekar ditzakeen aldaketei erantzuten jakitea izango da Danbolinen erronka nagusia etorkizunean: «Nahiz eta talde batzuk edo instrumentu batzuk desagertuko diren, beste batzuk sortuko dira, eta horri aurre egingen jakin behar dugu. Herriari musika irakatsi behar diegu, zaletasuna sortu, eta zer den musika eskola erakutsi. Nahi duten guztientzat hemen gaudela azaldu behar diegu oriotarrei; hori da niretzat helburu nagusia. Etorrtzen denak badaki zer duen hemen, baina ez dut uste gainontzeko herriarrek musika eskolako jardueraren berri dutenik. Ikasleek esandakoa oso hunkigarria da guretzat, eta herriarrek ez dute zertan gauza bera sentitu, baina nahiko genuke gure lanaren berri izatea», amaitu du musika eskolaren zuzendariak.



**MIROTZA**  
TABERNA

**☎ 943-83 12 19**  
ALMIRANTE OA KALEA, 2 | ORIO

Ondo pasa  
San Nikolas jaiak!

**OINARRI  
PODOLOGIA  
ZENTROA**

Arrantza kalea, 63 behea · ORIO · 943-57 53 61  
oinarri@podologia-oinarri.com · [www.podologia-oinarri.com](http://www.podologia-oinarri.com)

A poster for 'ORIOKO BAZARRA' with a red background and a repeating pattern of the text 'ORIOKO BAZARRA' in white outline. A white tilted rectangle in the center contains the text: 'ORIOKO BAZARRA' in bold red, 'Eusko Gudarien Kalea, 17' in black, and 'Ondo pasa festetan!' in red script.

**ORIOKO BAZARRA**

Eusko Gudarien Kalea, 17

*Ondo pasa festetan!*



**SU  
KIA**  
TABERNA · JATETXE

Eguneko menua  
Asteburuetakoa  
Oilaskoak eramateko  
Ogitartekoak  
Plater konbinatuak  
Terraza ederra  
(alboan umeentzako parkea)

**ondo pasa jaiak!**

**Abaromendi 38, behea 1**  
**ORIO · 943-89 21 29**





# KONTZERTUAK HERRITARREN ESANETAN

## Trikizio



**Iñaki Larrañaga.** Trikiti, folk, rock eta ska estiloak jorratzen dituen erromeria taldea da Trikizio, Xabi Arakamak sortua, Mari Arakama eta Maider Redondoren laguntzarekin, 1997an. Ibilbide luzea duen taldea da, hiru disko ditu klean, eta erromeri ugari eskaini ditu urte luzez. Gaur egun, Olatz Aiartzaguena, Amaia Zabala, Imanol Jareño, Unai Martinez eta Iker Hernandez dira Trikizioko partaideak.

## Zilibito Records



**Beza Ijurko.** 17na urteko sei lagunek osatutako musika kolektibo oiaztuarra da. Trapa, pop punka, hyperpopa eta beste hainbat estilo uztartzen dituzte euskaraz. Eta horiez gain, bachata bat ere sartu dute beren lan berrian. Gaztea Irratiko maketa lehiaketa irabazi dute aurtan, eta *Berriz* izeneko kantak arrakasta handia izan du. Oraindik ez dut taldea zuzenean entzuteko aukerik izan, eta aukera paregabea izango dugu sanikolasetan, herrian izango baitira. Beraz, bada-kizu, animatu zaitez eta jar dezagun herriko plaza dantzan!

## UT!



**Jon Agirresarobe.** Festak amaitzeko, arratsaldeko kontzertu bat nahi genuen, guztien gozagarri. Bestondoarekin –ajea beste gauza bat da– nostalgiko jartzen garela diote, eta aukera paregabea izango dugu aurtengo sanikolasetan. Berria da UT! proiektua; ibilbide luzeko musikariek osatzen dute, besteak beste, Ken7 taldeko Beñat Sernak, Jon Freskok eta Iñaki Zabaletak. Euskal kantu mitikoen bertsioak eskainiko dizkigute: Errobi, Itoitz, Benito Lertxundi, Ruper Ordorika, Niko Etxart eta Hertzainak, besteak beste. Gabonen aurretik izango ez dugu ba eztarriko marranta? Kantatzeagatik izan dadila, behintzat.

## Janus Lester



**Iker Gurrutxaga.** Pop musika, rocka, soula. Hori dena da Janus Lester eta, aldi berean, ez da. Kalitate handiko musikariz osatutako taldea da, eta duela urtebete kaleratu zuen lehen diskoa. Zuzeneko bikainak eskaintzen dituzte eta, hein batean, horren errudun Jokin Pinatxo da, askorentzat, egun, Janus dena. Berako abeslaria maiz izan da Orion kontzertuak ikusten, esaterako, iazko sanikolasetan, Willis Drummondoren kontzertuan. Aurtan, bera igoko da oholtzara, besteak beste, Gozategi taldeko bateria jotzaile Mattin Arbelaitzekin batera. Goza dezagun eta ez gaitzala loak hartu!

## Joselu Anaiak



**Naroa Andres.** Azpeitiko saninazioetan ezagutu nituen Joselu Anaiak. Gauean erromeria bat zegoela–eta azaldu ginen plazara, baina gaur egun horren ohikoa ez dena aurkitu genuen. Bost gizon, adinez helduak, egungo euskal abesti ospetsuak abesten, betidanik ezagutuko balituzte bezala. Uau! Txundituta gelditu nintzen. Sekulako giroa jarri zuten, eta kontzertu osoan ez ginen lehenengo ilaratik urrundu. Gerora jakin dut anaietako batzuk euskaraz ez dakitela eta gure gurasoek ere euren doinuetara dantza egiten zutela; beraz, aitzakia ederra dugu festetan adin guztietakoak elkarrekin plazan dantzan jarduteko!

## DJ Ibon



**Danel Agirre.** Ibon Insausti 40 urteko disko jartzaile zarauztar bat da. Gaur egungo musika jartzen du, ikusleak dantzan jartzea du helburu, eta gogoko du bere saioetan hainbat estilotako musika nahastea. Azken urteetan hara eta hona dabil; oraintsu aritu da Ortzalkan, San Martin festetan.

## Ginger



**Egoitz Dorronsoro.** Zarauzko eta Orioko musikariz osatutako taldea da Ginger. Punk doinuak lantzen ditu, ahotsetan doinu melodikoak eta oihiak tartekatuz, 90eko hamarkadako rock gitarreroaren zertzeladekin. 2023ko azaroan atera dute *Narras* bigarren lana.



# ONDO PASA SAN NIKOLAS Jaia



Orioko  
Herri  
Ikastola  
ORIO GARA

[oriokoikastola.eus](http://oriokoikastola.eus)



Abeslari Kalea 8,  
20810 Orio, Gipuzkoa  
943 83 47 04





# EGITARAUA

**Barraketan musikaririk gabeko tarteak izango dira: 11:30etik 12:30era eta 17:00etatik 18:00etara**

## Abenduak 5, asteartea

### San Nikolas bezpera

**18:30.** Pello eta Nikolasa erral-doiak, buruhandiak eta Danbolin musika eskolako txistu taldea.

**19:00.** Joselontxos txaranga. *Ibilbidea: Ibai Ondo, Aita Lertxundi, Aritzaga eta Plaza.*

**20:00.** Festen hasierako txupinazoa eta arrantzale zapiak janzteia. Herritarrei dei egiten zaie festetan arrantzale zapia janzteko. Segidan, Joselontxos txaranga eta txosna irekiera. *Ibilbidea: Plaza eta Aritzaga.*

**22:30.** Kontzertuak: Ginger, JanusLester eta DJ Ibon.

## Abenduak 6, asteazkena

### San Nikolas eguna

**10:30.** V. Kamel Ziani krosa Muntoko pasealekuaren ondo-ko parkean. Benjaminak, ki-muak eta infantilak.

**11:00.** Meza nagusia. Salatxo abesbatzak abestuko du.

**11:00.** Herriko txaranga eta jan-edanaren karroa. Txistorra parrillan ogitarteko txikia euroan salduko da.

*Ibilbidea: Mendibeltz, Balea, Arrantzale, Plaza, Aritzaga, Ibai Ondo.*

**12:00.** Dantzari Txikien Dantza Sueltoke Txapelketa plazan, Harribilek antolatuta.

**17:00.** LH 5etik DBH 2ra arteko gazteen lagunarteko jolasak gaztetxean, Ikastolak antolatuta.

**17:00.** Pilota partidak. II. Imanol Ibarguren memorialeko infantil mailako binakako finala. Emakumeak: Zabaleta-Mendizabal vs Arrillaga-Erasun.

Gizonak: Orbegozo-Garmendia vs Victor-Aranburu.

**17:00.** Pello eta Nikolasa erral-doiak, buruhandiak, Danbolin musika eskolako trikitilari taldea eta herriko trikitilari taldea.

**18:00.** Danbolin musika eskolako bandaren kontzertua. Ondoren, San Nikolas festetako ekitaldi nagusia. Pello eta Nikolasa, Salatxo, Harribil, Danbolin



Aurten Karela kiroldegian egingo da sanikolasetako herri bazkaria.

musika banda eta udal ordezka-riak.

San Nikolas festetan omenduak: sukaldari taldea.

**19:00.** Txurrudiskoteka, gazte-txean.

**20:00.** Erromeria, plazan: Triki-zio.

**22:00.** Bertso saioa, Karela kiroldegian: Andoni Egaña, Maialen-Lujanbio, Miren Artetxe, Amets Arzallus eta Agin Laburu bertsolari-ekin. Gaiak jartzen: Iker Iriarte.

**23:00.** Erromeria, plazan: Triki-zio.

## Abenduak 7, osteguna

### San Nikolas bigarrena eta parranda eguna

**10:00.** Jubilatuentzat hamaiketa-koa, Zaharren babeslekuan.

**11:00.** Haur eta Lehen Hezkun-tzako umeentzat jolasak plazan, Ikastolak antolatuta.

**12:00.** 10-14 urte bitartekoan Dardo Txapelketa, Bikamiotan.

**12:00.** Sagardo dastaketa: Urdai-

ra, Izeta, Satxota, Saizar, Lizeaga eta Aburuza sagardotegiekin. Hamar tragoko bonoa, 5 euro. Edalontzia 2 euro (edalontzia itzuliz gero, dirua itzuliko da). Ikastolak pintxoak eskainiko ditu 2 eurotan.

**12:00.** Gorlizko Txerokiekin kan-tu jira, kalez kale. *Ibilbidea: Ibai Ondo, Aritzaga, Plaza, Eusko Gudari, Arrantzale, Kiroldegia.*

**14:30.** Herri bazkaria Karela ki-roldegian

*Menua: otarrainxkak, heste-kiak, tortila eta txahal sahieskia parrillan. Postrea. Kafea. 18 euro.*

*Menu beganoa: gari zainzuriak parrillan, pistoa, babarrun zu-riak onddoekin. Postrea. Kafea. 15 euro.*

*Haurren menua: makarroiak tomatearekin, patata tortilla. Postrea. 8 euro.*

Ondoren, kantu jira eta kuadri-llen arteko jolasak, txosna ba-tzordeak gidatuta.

**17:30.** Kuadrillen eta familien igoera Hamarru elektrotxaran-garekin, Pello eta Nikolasa erral-doeikin eta buruhandiekin.

**19:30.** Erromeria, plazan: Joselu Anaiak.

**23:00.** Erromeria, plazan: Joselu Anaiak.

## Abenduak 8, ostirala

### San Nikolas hirugarrena

**10:00.** Ikastolak eta Zastek anto-latutako saskibaloï festa solida-ria.

**12:00.** 10 urtez azpikoen Dardo Txapelketa, Bikamiotan.

**Goizean.** Gure Boza otxotea.

**12:00.** Escamot catala emanaldia kalez kale, Talai Mendiko dan-tzariekin. *Ibilbidea: Ibai Ondo, Aritzaga, Plaza.*

**16:30.** Haur eta gazteentzat herri kirolak plazan, Joseba Ostolaza eskolako kirolariekin eta Zara-gueta Herri Eskolako gurasoe-ekin.

**17:00.** Helduen Dardo Txapelke-ta Bikamiotan.

**17:30.** Pello eta Nikolasa erral-doiak, buruhandiak eta Danbolin musika eskolako txistu taldea.

**17:30.** Joseba Ostolaza eskolako ikasleen herri kirol erakustaldia

plazan. Oriotarrak kanpotarren kontra aizkoran, harrijasotzen, trontzan eta txingetan.

**Oriotarrak:** Iñigo Landa, Gorka Etxeberria, Aimar Galarraga, Aroa Sanchez, Udane Ostolaza, Elene Ostolaza, Garazi Ansa eta Xiker Larrea.

**Kanpotarrak:** Jon Goenatxo, Xa-bier Guztia, Imanol Lartain, Ane Zinkunegi, Olaia Esnaola, Josu Urbietia, Gari Garmendia, Estefa-nia Etxebeste eta Asier Altuna.

**18:00.** Herriko txaranga. kalez kale. *Ibilbidea: Plaza, Eusko Gu-dari, Arrantzale, Plaza, Aritzaga, Ibai Ondo, Aita Lertxundi, Plaza.*

**18:30.** Talo tailerra haurrentzat eta taloak, plazan, Zaragueta He-rriko Eskolak antolatuta. Taloa 2,5 eurotan salgai.

**19:15.** Gipuzkoako Lokotx Bilketa Txapelketa, moilako errepidean.

**19:30.** Kontzertua: UT! Euskal kantu mitikoen bertsoak: Errobi, Itoitz, Benito Lertxundi, Ruper Ordorika, Niko Etxart, Hertzainak eta abar.

**23:00.** Zilibito Records taldearen kontzertua.





# IRITZIA



**Anuska Esnal**

Alkatea

## *Herriko festak ziran biharamunian...*

**T**ruk jota Iñaxik txota, Mariak ta Errufinak hirua. Mari Martin txoratu al zain burua? Laua-  
rekin hirua *kuñua*» jarraitzen du garai bateko kantuak. Eskabetxerian kantatzen omen  
zuten baporez jositako moila aurrean zutela. Ordutik, zeharo aldatu zaigu irudia: egun eska-  
betxeriarik ez eta bapore bakanak gure herriko moilan. Baina sanikolasak bizitzeko ilusioa,  
lehengo bera.

Honezkero, kuadrillan eta familian planak prestatzen ari gara denok: elkarte gastronomikoko mahaia  
edo tabernako ogitartekoak, denak dira baleko neguko festa euritsu edo haizetsuetan. Aurten, urteetan su-  
kaldean musu truk aritu den kuadrillak botako du txupinazoa. Omenaldietan atzera begira jartzen gara,  
etorkizuna ilusioz begiratzeko arrazoiak ditugulako. Belaunaldi berriei begiratu besterik ez dago, ez da  
gure herrian sukaldaririk eta zerbitzaririk faltako. Herritar mordoxkaren ekarpena da gure ur jariora; gizar-  
te, kirol, kultura elkarteek egiten duzuen lana.

Eskerrak festak batzordea osatu duzuen guztioi. Aurten ere jendetsuak izan dira batzordeko bilerak, eta  
ariketa demokratikoa erabatekoa izango bada, festa batzordeak egindako proposamena osorik onartu du  
Orioko Udalak. Herritar guztien errespetuan eta gozamenean pentsatzen egon den taldeak merezi du gure  
biba eta txaloa. Zorionak, beraz, festa batzordeari, herriko elkarteei eta eragileei. Zuei esker, marea bizian  
erriko urak bezala, elkarrekin kalea hartzeko egunak datoz.

Urruti bizi diren oriotarrak gogora ekarri nahi nituzke, eta osasun arazoez edo zenbait buru kantsanziok  
festaz gozatzeko aukera urratu dieten haiek ere bai. Opa dizuet onena, eta abenduaren 5ean iluntzeko zor-  
tzietan plazan ikusi nahi zaituztet. Koloretsua, anitza eta bizia da Orio, zer esanik ez San Nikolas festetan.  
Ondo-ondo pasatu!



# Baraka

taberna

**Aita Lertxundi 23 • ORIO**  
**943-54 37 24**

Gosariak 07:00etatik aurrera  
Pintxoak, ogitartekoak, entsaladak,  
hanburesak, eguneko platerak...  
2 terraza ditugu. Gaueko giroa ere bai.

**GORRA**

**SAN NIKOLAS**

**JAIK!**



Ligako kirol guztiak ikusgai (6 pantaila)

